




# JARRI DOMINA

Espanian egindako ikerlan batzuen arabera,  
Gizonekin sexu-harremanak dituzten

**10 GIZONETATIK BAT**

GIBaz kutsatuta dago.



Gizonengan egin diren GIB diagnostiko berri gehienek harreman homosexualekin dute zerikusia.

Gaur egun gertatzen den bezala, gizon kutsatuen proportzioa handia denean, erne ez egoteak

## KUTSATZEKO ARRISKU HANDIAGOAK dakar

GIBaz kutsatuta dauden 5 gizonetatik 1ek ez daki kutsatuta dagoenik ere.

**Rosa 900 601 601**  
**Gurutze**  
**Gorria 900 111 000**



[www.ponteunamedalla.es](http://www.ponteunamedalla.es)



[www.msps.es](http://www.msps.es)



## JARRI DOMINA: babestu zure burua

GIBaren aurka babesteko modurik onena beti preserbatiboa erabiltzea da, hots, uzki-koitoaren hasieratik amaierara, baita ahoan eiakulatzea saihestea ere.

Lubrifikatzaile hidrosolugarria (ur-baseduna) preserbatiboaren osagarri behar-beharrezkoa da uzki-koitoan, uzki-mukosa babesten duelako eta preserbatiboa hausteko arriskua gutxitzen duelako.

## GIBagatiko INFEKZIOAK EZ DU EZ SENDABIDERIK EZ TXERTORIK

Gaur egun, GIBagatiko infekzioak ez du ez sendabiderik ez txertorik; beraz, mehatxu handia da gure osasunerako eta ongizaterako.

GIBaz kutsatuta dagoen pertsona mediku batek kontrolatzen badu, medikuak agindutako tratamendua zorrotz betetzen badu eta bizimodu osasungarria badu, bere bizi-kalitatea eta itxaropena nabarmen hobetuko dira.

Hala ere, GIBaz kutsatuta dauden pertsonak, medikazioa dela eta edo beste gaixotasun edo infekzio batzuk direla eta, beste osasun-arazo batzuk izan ditzakete, hala nola, konplikazio metabolikoak, bihotz-hodietako gaixotasunak, hezur-masa galtzea, minbizi-mota batzuk, giltzurruneko gaixotasunak, gibelako nahasmenduak, kalte kognitiboa edota sexu-disfuntzioak, besteak beste.

## JARRI DOMINA....

## GIB-AREN ERAGINPEAREN OSTEKO PROFILAXIA

Tratamendu hau salbuespen gisa aplika dakieke GIBaz kutsatuta ez dauden pertsoneri, baldin eta arrisku handiko egoeretan egon badira, esaterako, GIBaz kutsatuta dagoen gizon batekin uzki-koittoa, eiakulazio eta guzti eta preserbatiborik gabe (edo hori hautsi egin bada) izan badute. Horrelakorik gertatzen bazaizu, joan zaitetz berehala ospitaleko larrialdietara, profesionalek zure kasua balora dezaten.

28 orduko tratamendu honek GIBaz kutsatzeko probabilitatea txikiagotzen du, 72 ordu baino lehen (hobe, lehenengo 6 orduen barruan) ekiten bazaio.

... **INFORMA ZAITEZ**

[www.ponteunamedalla.es](http://www.ponteunamedalla.es)



## JARRI DOMINA: egin proba

Arriskuko harremanik izan baduzu:

Joan zure medikuarengana, osasun-zentrorra edo GKE espezializatura.

Bertan baloratuko dute zure kasua eta proba berriro egin behar duzun eta, horrela bada, noiz egin beharko duzun esango dizute.

Diagnostiko goiztiarrak pronostiko hobea dakar.

**EGIN PROBA  
URTEAN BEHIN**